

Interreg POCTEFA FORMA NAEN



Eskualde Garapenerako Europako Funtsak (EGEF) kofinantzatutako proiektua
Proyecto cofinanciado por el Fondo Europeo de Desarrollo Regional (FEDER)
Projet co-financé par le Fonds Européen de Développement Régional (FEDER)



**MUGAZ GAINDIKO PRESTAKUNTZA ETA ENPLEGUA:
MUGIKORTASUNAREN ERRONKAK**



POCTEFA Forma NAEN proiektuko kideek eskerrak eman nahi dizkiete 2020-2022 Forma NAEN egitasmoan parte hartu duten ikasle eta kide guztiei, nahiz eta COVID 19ak eragindako osasun krisiak oztopoak sortu dituen eta proiektuaren hasierako agendak eta murriztu aldatu.

Akitania-Berria, Euskadi eta Nafarroa Euroeskualdeak martxan jarritako Forma NAEN proiektuak lanbide heziketako eskaintza kualifikatua eta berariazkoa garatu nahi du, mugaz gaindiko testuinguru testuinguruari egokitua, gazteei benetako enplegu aukerak eskaintzeko asmoz.

Prestakuntza, aldez aurreko eta ondorengo ezagutza gisa: horixe izan da Forma NAEN egitasmoaren estrategiaren ardatz nagusia. Egitasmoaren helburua Euroeskualdean kontratatzeko gaitasuna duten sektoreetan laneratzea, da, besteak beste automobilaren sektorean.



Ziurtagiridun mugikortasunaren esperientzia pilotu bat automobilaren sektorean

HELBURUA

Aitzinatzea lanbide heziketako tituluen eta gaitasunen baliokidetasuna eta baliozkotzea lortzeko.

Prestakuntza adarra: karrozaria-pintorea

Ziurtagiria jaso behar duten gaitasunen multzoa: gainazalen prestaketa

KIDEAK

- **Akitania Berria** : Akitania Berriko Chambre des métiers et de l'artisanat, Pirinio Atlantikoetako CMA, ANFA
- **Nafarroa** : DONAPEA ikastetxea Iruñean, Virgen del Camino ikastetxea, Nafarroako Gobernua
- **Euskadi** : CIFP Don Bosco LHII, Tknika

METODOA

1. fasea: Ezarpena

Bazkideekin aldez aurretik prestatzeko eta kontsultatzeko egindako etapa bati esker, mekanismoaren inguruak eta ziurtagiria definitu ahal izan ziren, eta baita honako hauek zehaztu ere: gaitasunen multzoa, eskuratutakoa baliozkotzeko eta ebaluatzeko metodoak, antolaketa logistikoa.

2. fasea: Formakuntza

2022ko urtarrilaren 17tik 2022ko urtarrilaren 28ra, bi astez, Baionako Chambre des Métiers et de l'artisanat-eko 5 ikasleek «Gainazalen prestaketa» gaitasun multzoari buruzko ikastaroak egin zituzten Iruñeko DONAPEA ikastetxean, eta hango 5 ikasleek ikastaro baliokideak egin zituzten Baionan.

3. fasea: Ziurtagiria

Mugaren bi aldeetan ziurtagiriak ematen dituzten erakundeek lankidetzat hitzarmen bat sinatu zuten, karrozeriako eta automobilen pinturako prestakuntza dualeko ikasleen mugikortasuna errazteko.

Herrialde bakoitzeko ikastetxeek eta ziurtagiriak ematen dituzten erakundeek (gutxienez 2), mugikortasun ekintzotan ziurtapenak emateko helburuz parte hartzen dutenek, bermatu egiten dute ikasleei Lanbide Prestakuntzaren ziurtagiria (CQP) lortzeko beharrezkoak diren ezagutzak eta gaitasunak baliozkotu egiten zaizkiela. Aitortza hori aldebikoa da.

Esperientzia piloturako zehaztutako esparrua betez, DONAPEA LHI-IIP ikastetxean* egonaldia egin zuten ikasle frantsesek ikasitakoa baliozkotu egin zuen Akitania Berriko CMAR-aren CFA BAYONNE ikastetxeak*, eta ANFAren onarpena jaso zuten. Akitania Berriko CMAR-aren CFA BAYONNE ikastetxean* egonaldia egin zuten ikasle espainiarrek ikasitakoa baliozkotu eta onartu egin zuen DONAPEA LHI-IIP ikastetxeak.

4. fasea: Zeharkako komunikazioa

Ikasleek, irakasleek eta ziurtagiriak ematen dituztenek jardunbide onen berri eman zioten elkarri, trukea aztertu zuten, irakaskuntza metodoak alderatu zituzten eta mugikortasun esperientzia hobetu zuten.

* Centro Integrado Politécnico de Formación Profesional DONAPEA

* Chambre des métiers et de l'artisanat Nouvelle-Aquitaine délégation Pyrénées-Atlantiques

* ANFA - Association Nationale pour la Formation Automobile

EMAITZAK

- Ziurtagiridun mugikortasunaren esperimentazioa deskribatzea, etorkizunean proiektuak martxan jarri ahal izateko.
- Ziurtagiriak ematen dituen mugikortasunaren kit bat egitea, programa pilotu honen emaitzak ahalik eta gehien zabaltzeko, beste gaitasun multzo batzuetara, beste sektore batzuetara, eta gero eta ikasle gehiagorengana irits daitezen.



Kudeaketa administratiboaren ekintza

Material didaktikoa diseinatu dugu-erabili nahi dituzten ikastetxe guztientzat baliagarria dena-, mugaz gaindiko enpleguei dagozkien prozedura administratiboak aurkezteko eta azaltzeko, alde batean bizi eta bestean lan egiten dutenak gogoan izanda.

Kudeaketa Administrazioaren Ekintzaren prestakuntza-jardunaldian 116 ikaslek parte hartu zuten, eta taldeko tailer eta jardueretan parte hartu ahal izan zuten:

- > **Nafarroako 35 ikaslek** / DONAPEA (Iruña), CIP Elizondo Lanbide Eskola IIP (Elizondo)
- > **Euskadiko 52 ikaslek** / USURBIL LHII (Zubieta), Plaiaundi BHI (Irun)
- > **Akitania Berriko 29 ikaslek** / Lycée Largenté (Baiona)

EMAITZAK

- Euroeskualdean garapen profesionalerako dauden aukerak identifikatzea.
- Parte hartzaileen (ikasleak, irakasleak eta ikastetxeak) arteko harremanak indartzea.
- Mugaz gaindiko kudeaketa administratiboaren arloko prestakuntzarako bideoak eta material didaktikoa diseinatzea.



Hizkuntza-prestakuntzako ekintza

Mugaz gaindiko ingurune profesional batean hizkuntza maila egokia izateak bi ardatz ditu:

- > Oinarrizko elementuak bi hizkuntzetan menderatzea.
- > Sektoreko termino teknikoak bi hizkuntzetan menderatzea.

Horregatik, parte hartzaile, ikasle eta irakasle bakoitzaren banakako eta eguneroko ikaskuntzara egokitutako online tresnak eta ikastaroak diseinatu ditugu, bakoitzaren mailaren arabera:

- Gaztelaniazko/frantsesezko maila proba
- Oinarrizko gaztelania ikastaroa
- Oinarrizko frantses ikastaroa
- Administrazio-kudeaketari berriazko ikastaro teknikoak gaztelaniaz eta frantsesez
- Automobilgintzako berriazko ikastaro teknikoak gaztelaniaz eta frantsesez

EMAITZAK

- Oinarrizko mailako 2 hizkuntza ikastaro eta hizkuntza teknikoko 2 ikastaro egin eta eskaini ziren.
- 111 ikaslek jarraitzen dute online prestakuntza hori egiten, eta hari esker enplegarritasuna handituko dute, sektore profesional jakin batean komunikatzeko beharrezko mintzamena, idazmena, ahozko eta idatzizko ulermena hobetuko dituzte, inolako beldur administratiborik gabe, eta eguneroko egoeretan segurtasunez moldatu ahal izango dira.



2030erako FormaNAEN

HELBURUAK

Mugaz gaindiko espazioa aukera eta mugikortasun profesionalerako gune gisa sustatzea, eta honako hauek txertatzea: baitetik, 2030 Agendaren garapen jasangarriko helburu eta printzipioak eta, bestetik, giza alderdiak (aniztasuna, sinesmenak, ohiturak, portaerak, aldaketarako motibazioa).

EKINTZAK

- 5 faseko azterlan bat abian jartzea: Pertzepzioa - Emozioak - Enpatia - Gogoeta - Mugaz gaindiko mugikortasuna sustatzeko ekintza eta sentsibilizazio plana. Euskadiko, Nafarroako eta Akitania Berriko ikasleen 153 ekarpen jaso dira. Inkestatutako pertsonen % 91k uste du bere lurraldetik kanpo ikastea edo lan egitea onuragarria dela garapen pertsonalerako eta profesionalerako. Emaitzak mugikortasun-gida batean gauzatu dira.
- Garapen jasangarriko helburuak eta FORMA NAEN 2020-2022ren emaitzak hiru lurraldeetako ikastetxeekin egindako lanean integratzea, proiektu eta ekintza berriak identifikatzeko jardunbide egokien gida eta mugikortasun gida bat sortuz.
- 5 lansaio mugaren bi aldeetako ikastetxeekin, GJHak (Garapen Jasangarriko Helburuak) ikastetxeetan nola aplikatzen diren aztertzeko, GJHen eta horiek aplikatzeko aukeren inguruko lantaldeak osatzeko, eta hiru lurraldeetako ikastetxeen arteko baterako ekintzak eta esperimentazioak sustatzea.

EMAITZAK

- ➔ Mugaz gaindiko eremuaren aukerak ezagutzera emateko gida.
- ➔ Lanbide-heziketako zentroetako garapen iraunkorreko helburuen jardunbide egokien gida.





Ondorioak

2020-2022 Forma NAEN proiektuari esker, EMPLEO proiektuak adierazitako gomendioak zehaztu ditu, mugaz gaindiko emplegu-fluxuak garatzeko, emplegua aitzin eta gero :

- «Ondoko» hizkuntza ikastea: oinarrizko hizkuntza, administrazioaren eta kudeaketaren arloko hizkuntza teknikoa, sektore profesionalen hizkuntza teknikoa, lineako ikastaroen bidez.
 - Langileei zuzendutako laguntza administratiboa eta fiskala: mugaz gaindiko enpleguari buruzko berariazko datu administratiboekiko sentsibilizazioa prestakuntzan sartzea, tresna pedagogiko egokien bidez.
 - Langileen, ikasleen, irakasleen eta ikertzaileen trukeak: ikastetxeen eta ziurtagiriak ematen dituzten erakundeen arteko lankidetzak hitzarmenek behar dituzten baldintzak zehaztea, «ondoko» herrialdean eskuratutako gaitasun multzoen aldeko onarpena egin ahal izan dezaten.
 - Mugaz gaindiko espazioari balioa ematea - GJHen aplikazioa.
-



PROIEKTUAREN KIDEAK

Akitania-Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdea, Pirinio Atlantikoetako Chambre des Métiers et de l'Artisanat, Nafarroako Gobernu Hezkuntza Departamentua, ZubiGune Fundazioa, Usurbil LHII, Ikaslan Gipuzkoa, TKNika eta Akitania-Berriko Chambre Régionale de Métiers et de l'Artisanat. Parte hartzen dute, halaber, Lycée des métiers Paul Bert, LGT Saint Dominique, Lycée Louis de Foix, IES Plaiaundi BHI, CIFP Don Bosco LHII, Elizondo Lanbide Eskola LHI-IIP, Donapea LHI, Virgen del Camino LHI, ANFA eta EEI-k.

FORMA NAEN PROIEKTUA ETA POCTEFA PROGRAMA

Forma NAENek 746.875,68 euroko aurrekontua du. Eskualde Garapeneko Europako Funtsak (EGEF) egitasmoaren % 65 finantzatzen du Interreg V-A Espainia, Frantzia eta Andorra (POCTEFA 2014-2020) programaren bidez. POCTEFaren helburua da Espainia-Frantzia-Andorra mugako eremuaren integrazio ekonomikoa eta soziala indartzea. Eskaintzen duen laguntzaren ardatza mugaz gaindiko jarduera ekonomikoak, sozialak eta ingurumenekoak garatzea da, horretarako lurralde garapen iraunkorrerako estrategia bateratuak baliatuz.

Interreg
POCTEFA
FORMA NAEN

